

/ Nabarmentzekoak

- > Edukiontzietan sutea goiz detektatzeko eta automatikoki itzaltzeko proiektu pilotua (4. or.)
- > Punta Begoña, Euskadin egindako musika zabalteko agertokia (4. or.)
- > Getxo, belar hockeyko haur mailako Espainiako Txapelketaren egoitza (5. or.)



Opera. Hilak 15 (larunbata), 19:30ean, Muxikebarrin, "Rigoletto" Leonor Gago & Moldavia Operarekin. Sarrerak agortuta.

Antzerkia. Hilak 14 (ostirala), 20:00etan, Muxikebarrin, "Arizona" (euskaraz), Txalo Produzioak taldearekin. 10€.

**A-
GENDA**

M8ko jarduerak memoria kolektiboaren bidez emakumeen arteko sareak ehuntzearen garrantzia ikusaraziko dute

Emakumeen arteko sareak ehunduz memoria kolektiboaren bidez izango da Gurari Emakumeen Etxean Udalak antolatuko dituen jardueren leloa, martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatuko dela eta. Egun hori ospatzeaz gain, duela gutxi martxan jarritako Etxe berriaren garrantzia nabarmendu nahi da, baita emakumeen mugimendua eta mugimendu feministarena ere, aipatutako guneak aldarrikatu eta posible egiteko orduan. Horregatik, aurtengo programazioak bi helbururi erantzun die, batetik, borroka eta aldarrikapen feministak ikusarazteari, eta, bestetik, feminismoaren memoria historikoa eraikitzearen garrantziaz hausnartzeari, baita Gurari bezalako espazioak memoria hori transmititzeko eta bizirik jarraitzeko tresnak izateaz ere. "Gure aurreko emakumeak goraiatzeko eta, aldi berean, berdintasunerako bidea eraikitzen jarraitzeko modua izango da. Ahaztuta geratu ezin diren borrokek, lorpenek eta erresistentziek osatzen dute feminismoaren historia, eta hori gogoratu behar dugu, atzera ez egiteko. Baina ez da bakarrik emakumeen zeregina. Gizarte konprometitua behar dugu, jakinda benetako berdintasuna soilik helburu partekatatu bat bada izango dela posible", azaldu du Amaia Aguirre alkateak.

Bestalde, Carmen Diaz Gizarte Kohesiorako zinegotziak adierazi duenez, "jarduera horien bidez, feminismoak gizadiaren historian zehar izan duen garrantziari balioa eman nahi diogu, bai eta gizarte eta balioak aldatzeko egin duen ezinbesteko ekarpenari ere, emakumeen eskubide sozial, politiko eta zibilak zabaltearen ahalbidetuko baitute. Sektore arteko feminismoa defendatzen dugu, generoari beste aldagai batzuk (etnia, klase soziala, adina, sexu orientazioa...) zeharkatzen baitizkiote, botere ardatzak aldatzen dituztenak eta horien gainean jarri behar baita begirada".

Egitaraua

Aurtengo egitarauari Maite Albiz Dokumentazio Zentroaren kartel feministen erakusketak emango dio hasiera. Erakusketak martxoaren 3tik 31ra bitartean egongo da ikusgai. Kartel enblematikoak izango dira, hainbat borroka erakusten dituztenak, eta horietako asko gaur egun indarrean oraindik daudenak Bisita gidatuak egiteko aukera egongo da.

MARTXOAK 8 DE MARZO

EMAKUMEEN ARTEKO SAREAK
EHUNTZEN
MEMORIA KOLEKTIBOAREN
BIDEZ



TEJIENDO REDES ENTRE
MUJERES
A TRAVÉS DE LA MEMORIA
COLECTIVA

EGITARAU/PROGRAMACIÓN



 

Bestalde, martxoaren 14an, 18:00etan, Gurari Liburutegi Feminista aurkeztuko du Josune Muñoz euskal filologo, ikertzaile eta Skolastika Literatura Zerbitzuen sortzaileak. Jarduera horren bidez, Gurarin eskuragarri izango den kultura feministaren funtsa ezagutaraziko da, eta zerbitzu hori emakumeen historiara hurbiltzeko aukera gisa aitortuko da.

Feminismoa, memoria historikoa eta aldaketa soziala izango da Miren Llona EHUKo Historia Garai-kideko irakasleak martxoaren 19an, 19:00etan, emango duen hitzaldiaren izenburua. Martxoaren 26an, 18:30ean, *Indarkeria matxistak prebenitzeko erresistentzia eta estrategia feministak* elkarrizketa-mahaia egingo da. Topagune bat sortuko da, Manuela Ramos Emakumeen Mugimendua erakunde feministako ordezkariak indarkeria matxista mota guztiak desagerrarazteko eta salatzeko estrategiak bultzatzeko egiten duen lanaren berri emateko. Egitarauak *Arrazakeriaren kontrako danborren zirkulua* ekintza ere aurreikusten du Algortako Geltokia plazan, martxoaren 8an bertan, 13:00etan, Libres y peligrosas taldearen eskutik.

Aurrekoetan bezala, Udaleko Bozeramaileen Batzordeak Adierazpen Instituzional baten onarpena eztabaidatuko du ostegun honetan, hilak 6; eta martxoaren 7ko eta 8ko gauetan, Areetako kaia eta igogailu publikoak morez argiztatuko dira.

Alemania, Herbehereak eta Espainiako taldeak Getxo Jazz lehiaketan



Eneko Diéguez Quartet

Alemania, Herbehereak eta Espainiako lau banda aukeratu dituzte uztailearen 2tik 5era Muxikebarrin egingo den Getxo Jazz talde lehiaketan parte hartzeko. Lehiaketaren aurreko fasean Europako 13 herrialdeko 48 taldek hartu dute parte. Asteazkenean, uztaileak 2, Eneko Diéguez Quartetek irekiko du lehiaketa; ostegunean, uztaileak 3, IMB Special 4th taldearen txanda izango da; 4an, César Vidal & Artikulation Band boskotea arituko da, eta 5ean, lehiaketaren azken egunean, Paper Moon hirukotea igoko da agertokira. Talde irabazleak jazzaldiaren azken egunean joko du, uztailearen 6an, igandean, kontzertu nagusiaren aurretik. Gainera, 4.500 euro jasoko ditu eta zuzeneko CD bat grabatuko du.



MARTXOAK 6 OSTEGUNA

Poesia errezitaldia. 18:30ean, Romo Kultur Etxean, "Poesías de Francisca Aguirre", Luisi Landa eta Charo Pérez (rap-sodak) eta Pilar Moralesekin (piano jotzailea). Antolatzailea: Romo-Areeta-Gizatiar emakumeen elkarte soziokulturala.

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Sofia Coppolaren "Priscilla". 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Erakusketa. Punta Begoñako Galerietan, 18:00etan, "Mendian Gora" erakusketaren inaugurazioa Antxon Iturrizarekin (EMMOA). Hilaren 23ra arte. Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea.

MARTXOAK 7 OSTIRALA

Inauteriak. Algorta. Egitaraua: <https://labur.eus/cc2zE>

Erakusketa. Algortako Kultur Etxean, Tania Basterretxearen "Lotura basatiak". Apirilaren 4ra arte.

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Sexismoa publizitatean". Hilaren 30era arte. Antolatzailea: Romo-Areeta Gizatiar emakumeen elkarte soziokulturala eta Bizkaiko Foru Aldundia.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Pablo Cortellesiren "Siempre nos quedará mañana". 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Kontzertua. 21:00etan, Muxikebarrin, Eire & J Martina. 12€.

MARTXOAK 8 LARUNBATA

Inauteriak. Areeta eta Algorta. Egitarauak: <https://labur.eus/cc2zE>

Dantza plaza. 19:00etan, Algortako Geltokia plazan, erromeria udalerriko dantza taldeekin: Agurra, Berantzagi, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola.

Ipar martxa. Getxotik ibili. 10:00etan, irteera Algortako batzokitik. Makilen mailegua eta prestakuntza txikia 09:15etik aurrera. Informazioa: nw.itxartu@gmail.com Antolatzailea: Itxartu Mendi Taldea.

MARTXOAK 9 IGANDEA

Inauteriak. Algorta. Egitaraua: <https://labur.eus/cc2zE>

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Yoko eta lagunak" (euskaraz). Adin guztiak. 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Zorro y liebre salvan el bosque" (gaztelaniaz). Adin guztiak. 2,50€.

Haurrentzako ikuskizun musikala. 16:30ean eta 19:00etan, Muxikebarrin, "Mugitu zaitez!" (euskaraz), Txulalarekin. 6€.

Antzerkia. Emakumeak eszenan. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Felicidad no está en los mapas" (gaztelaniaz). 4,5€.

MARTXOAK 10 ASTELEHENA

Hitzaldia. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Ley de garantía integral de la libertad sexual, fortalezas y debilidades". Hitzlaria: Reyes Goenaga Olaizola (Zuzenbidean lizentziatua eta Bizkaiko Probintzia Auzitegioko presidentea). Antolatzailea: Sinope Kultur Elkarte. <https://sinopeblog.wordpress.com/>

MARTXOAK 12 ASTEAZKENA

Euskaraldia. Herri batzordea, 18:30ean, Artatza Romo Institutuan. Bilerak irekia Euskaraldia antolatzen laguntzeko.

MARTXOAK 13 OSTEGUNA

Zinemabarri. 19:00etan, Muxikebarrin, Sofia Coppolaren "Black is beauty" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Mahai-ingurua. Punta Begoñako Galerietan, 19:00etan, "Emakumea eta mendia". Antolatzailea: Etorkizuna Mendi Taldea.

MARTXOAK 14 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Arizona" (euskaraz), Txalo Produzioak-ekin. Sarrearak agortuta.

Kontularien kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxean, ipuinak entzun edo kontatu nahi dituzten helduen topagunea (gaztelaniaz).

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Aki Kaurismäkiren "Fallen leaves" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

MARTXOAK 15 LARUNBATA

Kontzertua. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Bilbao Barrok taldearen emanaldia. 5€

Opera. 19:30ean, Muxikebarrin, "Rigoletto", Leonor Gago & Moldavia Operarekin. Sarrearak agortuta.

MARTXOAK 16 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Salvajes" (gaztelaniaz). 7 urtetik aurrera, 2,50€.

Haurrentzako ikuskizun musikala. 18:00etan, Muxikebarrin, "Pinocho" (gaztelaniaz), Mar Rojo Teatrorrekin. 4 urtetik aurrera. 6€.

Atxikimendua Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformarekin

Udalbatzak aho batez onetsi zuen, otsaileko osoko bilkuran, EH-Bilduk abiarazi eta udal-gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) transakzionatutako mozio bat Elikagaien Xahuketaren aurkako Euskadiko Plataformarekin bat egiteko konpromisoa hartzeko. Gainera, orain arte bezala, Udalak soberako janaria berrerabiltzeko *Oreka* ekimena sustatuko du, Getxoko hirugarren sektoreko entitateekin, eta ikastetxeetan izaten diren janari-soberakinei buruzko azterketa egingo du, *Rexcatering* ekimena aplikatu daitekeen argitzeko.

Halaber, bilkura honetan Udalbatzak ontzat eman zuen PPren mozio bat aztertzeke eskualdeko baserrieta-ko produktuen azoka egiteko aukera dagoen, erabakitzen den aldizkotasunarekin eta egokientzat jotzen den lekuan. Hori dela eta, udal-gobernuak gogorarazi zuen ordenantza berria prestatzen ari dela kaleko salmentari buruzkoa, horren bitartez egungo zein etorkizuneko beharrezan aurre egin ahal izateko. Ordenantzaren kapitulu batean barazkien eta fruten aldizkako azoka bateko salmenta arautuko da.

Mugikortasuna ikastetxeen inguruan

Beste alde batetik, EH-Bilduk proposatu eta udal-gobernuak transakzionatutako beste mozio bat ere ontzat eman zen. Horren arabera, Eskola Bideak programarekin bat etorri, eta ikastetxeekin batera lan eginez, Udalak ikastetxeen inguruko mugikortasuna hobetzeko proposamenak landuko ditu oinezkoen lehentasuna emanez. Ondorioz, Udalak konpromisoa hartzen du ikastetxeek aurkezten dituzten proposamenak aztertzeke eta baloratzeko, eta, teknika aldetik egingarriak izanik, ekonomikoki bideragarriak direnekin esku hartzeko.

Gobernuak dagoeneko abian diren zenbait ekimen, jarduketak eta programa aipatu zituen: Eskola Bideak programa, martxoan egingo den ibilaldiarekin, Eskolak Tipi-tapa, DBHko 3. - 6. bitarteko mailetako ikasleentzat; edo lankidetzak Andra Mari ikastetxearekin (hobekuntzak ezartzen gehien parte

hartu dutenetako bat): lankidetzak horren emaitza izan da ikastetxe hori bidegorri baten bitartez Galea muturrarekin lotuko dela, Aixerrotan zehar. Proiektu hau lizitazio-fasean dago.

SEADren sorreraren 49. urteurrena

Era berean, SEAD sortu zeneko urteurrena dela eta, mozio bat onartu zen, honako hau berresten duena: "Fronte Polisarioa saharar herraren ordezkari legitimoa eta bakarra da, eta NBEk eta nazioarteko komunitateak hala aitortzen dute". Halaber, honako hau salatzen da: "Marok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpokoa da eta nazioarteko arauak urratzen dituen okupazioa da". Eta "Saharako preso politiko guztiak berehala askatzea" exijitzen da, besteak beste. Mozioa EH-Bildutik abiatu zen, eta EAJ/PNVk transakzionatu zuen. Elkarrekin Podemosek aldeko botoa eman zuen eta PP abstenitu egin zen.

Jolaguneak

Azkenik, Elkarrekin Podemosen mozio bati oniritzia

eman zitzaion, PPren erantsen zuzenketa bat onartu ondoren, Getxoko askotariko jolastokietan elementuak hobetzeko eta birjartzeko esku-hartzeen esparruan, irizpide gisa ezar dadila elementu berezien bitartez birjartzea, elementu bereziek erantzuna eman diezaieten hainbat adin-tarteen jolasari eta aisialdiari; eta, hala elementuen ordezkapenean nola parke berrietan, adin tarte zabalagoa egon dadin eta inklusiboak izan daitezkeen.

LPZ aldatu da

Udalbatzak ontzat eman zuen Udalaren Lanpostuen Zerrenda eta plantilla aldatzea, bi lanpostu sortzeko (Administrazio orokorreko teknikari bat Gobernu Irekia eta Modernizazioaren arloko-Datuen babesa; ekonomia teknikari bat Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Saileko) eta bi lanpostu aldatzeko (Uren Lantaldeko ikuskatzailea eta lantaldeko langile espezialista). Proposamenak aurrera egin zuen udal-gobernuaren eta EH-Bilduren botoekin eta PPren eta Podemosen abstentzioekin.

Ludotekarako izenematea

Martxoaren 13ra arte zabalik egongo da Areetako Kukurpraka ludotekak Aste Santuan eskainiko dituen jardueretarako izena emateko epea. Lehen txanda apirilaren 14tik 16ra izango da eta bigarrena apirilaren 22tik 25era. Ordutegia 10:30etik

13:30era bitartekoa izango da Romo ikastetxean. Txanda bakoitzean 36 plaza izango dira, 2014tik 2019ra (biak barne) jaiotako haurrentzat. Martxoaren 21ean argitaratuko dira onartutako zerrendak: <https://labur.eus/5EVR8>



Bisita ehun urteko beste emakume bati

Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak Ángela Azkueta Gaubeka bisitatu zuten astelehenean, martxoak 3, Areetan, 100 urte bete zituela eta. Leioan jaioa, udalerririk horretan eta Portugaleten bizi ondoren, duela 20 urtez geroztik Getxoko auzokidea da. Emakumeak alaba bat eta hiru biloba ditu. Agintariek ohiko *Aixerrota* oroigarria eta lore sorta bat eman zizkieten emakumeari.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.



Erakusketak Algortan eta Romon

Algortako Kultur Etxeko erakusketak-aretoan, Villamonten, Tania Basterretxearen *Lotura basatiak* erakusketak egongo da ikusgai, apirilaren 4ra arte. Erakusketak gorputzean eta memorian zehar egindako aurkikuntza bidaia bat da. Gainera, 22an, 11:00etan, topaketa bat izango da artistarekin, eta 29an, ordu berean, tailer bat, eraldaketa pertsonalerako eta norbere ordezkartzarako tresnak lantzeko.

Bestalde, Romo Kultur Etxean, martxoaren 30era arte, *Sexismoa publizitatean* erakusketak egongo da ikusgai, Pablo Vidalen ikerketan baten emaitza, eta publizitate sexista baten adibideak erakutsiko ditu, iraganeko kontua ez dena, baizik eta gaur egun adierazpide berriak hartzen dituen.

“Mugitu zaitez!” haurrentzako ikuskizuna

Igandean, hilak 9, 16:30 eta 19:00etako saioetan, Txulalari taldearen *Mugitu zaitez!* haurrentzako euskarazko ikuskizuna izango da Muxikebarrin. Musika, dantza eta jolasa uztartzen dituen proposamena da, 2 eta 12 urte bitarteko haurrak modu didaktikoan entretenitzeko. Antzezlan honetan, Alai, protagonista, egun osoan lanpetuta dabil bere telefono mugikorrarekin. Miel eta Xaba lagunak, Peru krokodiloa eta Martin elefantea, dispositiboa alde batera utzi eta beraiekin jolasten has daitezten saiatuko dira abes-


“Emakumeak eszenan”-en antzezlan berria

Kamerino Teatrok *Felicidad no está en los mapas* antzezlan taularatuko du Romo Kultur Etxean igandean, hilak 9, 19:00etan, *Emakumeak eszenan* zirkuituaren barruan. Kalek egunero tokiz aldatzen diren hiri batean, egileak, Luis Fernando de Julianek, ibilbide bat proposatzen du bertako biztanle guztien asmoan barrena: zorientasunaren bilaketa. Sarrera: 4,50 euro.



Algortako eta Areetako kaleek Inauterietako ospakizunen lekukoa hartu dute

Algortak eta Areetak hartuko diete lekukoa, asteburu honetan, inauterietako ospakizunei.

Areetan, Berantzagi taldeak, ohikoa den bezala, goizeko jaieguna antolatu du Eskoletako plazan. 11:00etatik aurrera, haurrentzako tailerrak, mozorro lehiaketa, txokolatada, dantzak eta Vivo La Dance akademiaren dantza erakustaldia izango dira. Egitaraua 14:00etan amaituko da sari banaketarekin.

Algortako programa ostiralean, hilak 7, hasiko da, txikientzako jarduerekin, San Nikolas plazan. 17:15etik aurrera ipuin kontaketa, haurrentzako tailerrak, txokolatada eta disko-festa izango dira. 21:30ean

Pink Houses taldearen kontzertua izango da Katea aldean.

Larunbatean, hilak 8, egingo dira jarduera gehienak. 12:30ean hasiko dira kalejira batekin, musikarekin eta erraldoi eta buruhandiek, eta photocallarekin Zabalan, non, eguerdian, familia mozorroen bazkaria egingo den (koadrilen bazkaria San Nikolasen izango da). 18:30ean mozorro desfilea abiatuko da Zabalatik eta 19:00etan dantza plaza izango da Telletxen. Ondoren, zumba Kasinoko plazan (20:00etan), musika San Nikolasen Bull eta DJ Hija del Nopalekin Abian Kultur Elkartean (21:00etan), Lady Carrot and The Clocks taldeen kontzertua Kasinoko plazan (22:00etan) eta

DJ Lady Grumpy Katea aldean (22:30ean).

Igandean, hilak 9, San Nikolas plazan, 11:30etik aurrera umeentzako tailerrak eta jolasak, euskal inauterien desfilea eta txistorrada izango dira. Programazio osoa hemen: <https://labur.eus/0u31oyeg>

Segurtasun-dispositibo berezia Udalak, aurrekoetan bezala, segurtasun dispositibo berezi bat ezarri du egun horietarako. Polizia-patrulak, uniformedunak eta kalez jantzitakoak, lanean arituko dira, bai jai-esparruetan, bai inguruetan. Gainera, Algortan bideo-zaintza kamerak jarriko dira, iazko jaietan emaitza oso onak eman zituen baliabidea.

Jota Martina eta Eire taldeen kontzertua, soinu garaikide dantzagarriena

Jota Martina bandak eta Eire bikote zumaiarrak kontzertua eskainiko dute ostiralean, martxoak 7, Muxikebarrin. 21:00etan hasiko da eta sarreraren prezioa 12 eurokoa da.

Jota Martina pop elektronikoko talde nafar-bizkaitarrak, Kattalin eta Ane Bárcena ahizpek osatuak, Javier Jorajuriarekin batera, bere bigarren albuma aurkeztuko du, *Negu gorri*, neguaren gordintasuna aipatuz, bere klase sozialaren eta musika alternatiboko euskal banda historikoaren arabera.



Eire, Eire Maiak eta Eire Salegik osatutako pop talde bat da, ukitu urbano eta elektronikoa dituen. Bere erreferentzia na-

gusiak pop alternatibo estatu-batuarra dira, sintetizadoreekin eta soinu atmosferikoagoekin konbinatzen dituen.

Itxaso Diazek abortuari buruzko trilogia dokumentala aurkeztuko du RKE

Romo Kultur Etxeak Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak, Caosticak eta Udalak antolatutako proiektu berri bat eskainiko du datorren ostegunean, hilak 13, 19:00etan. Oraingoan, martxoaren 8ko oihartzunak gorabehera, hiru dokumental labur aurkeztuko dira: *Las mujeres decididas*, *Las historias de to-*

dos nosotras eta *Cautivas*.

Laburmetrai hauen bidez, abortatzeko eskubideak errepresio gogorra jasaten jarraitzen duela ikusiko dugu Salvador eta Honduras bezalako herrialdeetan, 20 urte arteko kartzela-zigorrekin. Hirugarren filmean, *Cautivas* izenburukoan,

espetxetik ateratako emakumeek herrialdea uzteko duten beharra ikusten da.

Solasaldian, 2022an ikus-entzuzko ibilbideagatik AixéGetxo saria jaso zuen Itxaso Diazek eta Sandra Moreno kazetari eta ekintzaile salvadortarrak hartuko dute parte.

Edukiontzietan sutea goiz detektatzeko eta automatikoki itzaltzeko proiektu pilotua

Udalak proba pilotu bat egingo du hiri hondakin solidoen (HHS) ehun edukiontzi baino gehiagorekin, sutea goiz detektatzeko eta automatikoki itzaltzeko. Helburua da ekintza bandalikoak prebenitzea eta modu eraginkorrean heltzea administrazioarentzat kostu handia dakarren edukiontzietan nahita piztutako suteen problematikari, eta, aldi berean, edozein gertakariren aurrean erantzun azkarra bermatzea.

Horregatik, teknologia berritzailea duen sistema aurreratu bat ezarriko du, funtsezko bi zutabetan oinarritzen dena. Alde batetik, detekzio goiztiarreko sentsoreak instalatuko dira edukiontzietan, suaren presentzia eta tenperaturaren igoera anormala identifikatzeko diseinatuak. Sentsore horiek LoRaWAN sarera konektatuta egongo dira, irismen luze eta energia kontsumo txikiko hari gabeko komunikazio sistema bat, alertak denbora errealean bidaltzeko aukera ematen duena.



Itelazpirekin egindako akordioari esker, teknologia horrek gailuen konektibitate eraginkorra bermatuko du, eta larrialdi zerbitzuei berehala jarduteko eta kalteak minimizatzeko aukera emango die.

Bestalde, edukiontzien barruan sua automatikoki itzaltzeko gailuak jarriko dira, sua berehala itzaltzeko eta zabaltzea saihesteko. Sentsorika berritzailearen eta erantzun automatikoaren konbinazio horrek, suteen inpaktu ekonomikoa murrizten laguntzeaz gain, disuasio elementu bat ere

izango da ekintza bandaliko horiek eragiten saiatzen direnentzat. *“Ekimen honekin, Getxok segurtasunarekin, berrikuntzarekin eta jasangarritasunarekin duen konpromisoa berresten du, teknologiarik aurreratuena erabiliz gure auzotarren segurtasuna hobetzeko eta hiri altzarien babesa bermatzeko. Gobernuak neurri eraginkorren eta berrikuntzan eta baliabide publikoen kudeaketa arduratsuan oinarritutako irtenbide erreal eta kontrastatuen aldeko apustua egiten du”*, adierazi du Janire Ocio Azpiegitura, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziak.

Probatik bide publikoan inplementatzeko fasera

Sistema berritzaile hori arrakastaz probatu zen iragan astean bertan, ingurune kontrolatu batean, Larrañazubiko ingurumen-gunean, hain zuzen ere, Babes Zibilarekin, Suhiltzaileekin eta Udaltzaingorekin lankidetzan, eta oso emaitza positiboak lortu dira. Alde horretatik, Gobernu Irekiko eta Modernizazioko zinegotzi Zalora Campillok adierazi duenez, *“proiektu hau Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloaren eta Gobernu Irekiaren eta Modernizazioaren Arloaren koordinazioaren emaitza da, eta teknologia azpiegituren zerbitzura jartzen den beste adibide bat da”*.

Hurrengo urratsa esperientzia hori bide publikora eramatea izango da, udalerriko hainbat gune estrategikotan fase pilotu bat eginenez. Prozesu horretan, sistemaren eraginkortasuna ebaluatuko da, eta behar diren doikuntzak egingo dira, eskala handiagoan inplementatu aurretik.

Punta Begoña, Euskadin egindako musika zabaltzeko agertokia

Azken hilabeteotan, Punta Begoña musikaz betetzen ari da. Eitb Kulturak eta galeriek Euskadin egindako musika zabaltzeko konpromisoa berritu dute. Eta horren adibide da iragan asteburuan zortzi musika klip berri grabatu zirela Galerietan Eitb Kulturaren emititzeko.

Konpromiso horri esker, hainbat artista berri eta ospetsuren emanaldiak egin dira, besteak beste, Amaia Miranda, Laura Sam, Mahl Kobat eta Maider Lasa, edo zenbait elkarlanen bidez, hala nola Ke Leporen eta Felix Buffen artekoa edo Ander Mujikaren eta Txofo Wilsonena, urtarrilean monumentuaren areto nagusia musika elektronikoren talaia bihurtu baitzuten. Eitb Kulturaren eta Punta Begoña Fundazioaren arteko lankidetzak horri esker, sentsibilitatez betetako piezak kaleratu ahal izan dira eta, telebista publikoaren eta sare sozialen bidez, euskal musikaren sorkuntzarik berrienak helarazten dituzte, hainbat estilo erakutsiz, hala nola rap, musika elektronikoa, poesia, rocka edo opera.

Galerietako agertokiak, hortaz, garrantzi nabarmena du klipen tratamenduan; izan ere, artista parte-hartzaile batzuek azpimarratzen dutenez, esate baterako Amaia Mirandak, *“tokiek abestiak aldatzen dituzte eta batzuetan musikari bat gehiago dira”*.



Eta obraren bilakaerak horretarako aukera eman duen neurrian, Punta Begoñan emanaldiak, grabazioak, diskoen aurkezpenak edo musika-programen filmaketak egin dira. Hala, RTVEk galeriak aukeratu zituen *Un país para escucharlo* programa ezaguna grabatzeko, Ariel Rot musikariak gidatua. Iparraldeari eskainitako atalean, Punta Begoñak Shinova taldea-

ren emanaldia hartu zuen, urtebete geroago jaialdi ospetsu netako kartelen buru izan dena. *Si no es contigo* bere abestiaren bideklipak Punta Begoñako aisialdirako galeriaren handitasuna eta itsasoaren gaineko ikuspegi ikusgarriak biltzen ditu.

Music Legends jaialdia ere izan da bertan, jaialdiak erabaki baitzuen Bizkaiko leku enblematikoetara

eramatea bere musika. McEnroeren kontzerturako aforoa, udako ilunabarrean, minutu gutxitan bete zen. Bitartean, Ondarearen Europako Jardunaldietan, Galeriek zuzeneko musikari ireki zizkioten ateak eta zuzenean, irratiz eta sareen bidez eskaini ziren Xabi Aburruzaga trikitilariaren eskutik Kepa Junkerari egindako omenaldi zirrarragarria, Ton-txu Ipiñaren edo Malu Garayren emanaldiak, Biotz Alai Abesbatzaren katedral soinua, Feileren musika zelta, edo Iñaki Basabe eta Iryna Aleksichuz Ukrainako Musika Akademia Nazionalen izarraren arteko *Txoriak txori* duetoa.

Bestalde, Manuel Castillo musikari andaluziarrak, TOUR MUSIC FEST 2024ko finalistak, Punta Begoñan grabatutako *Silencio* abestiaren bideklip berria aurkeztuko du martxoaren 11n.

“Punta Begoñako espazioen edertasuna, baina baita grabazioarako bere tokien sonoritatea ere, balio handikoak dira artista eta ekoizleentzat. Eitb Kulturarekiko lankidetzak bat egiten du hedabide, plataforma, zinema-ekoizle, telesail, jaialdi eta abarren proposamen gero eta handiagoarekin, beren ikus-entzunezko proiektuak kokatzeko Galeriek osatzen duten inguru paregabean”, adierazi du Fundazioko presidente den Ignacio Uriartek.

Getxo Kirolak-ek bere hedapen-kanal propioa estreinatu du WhatsAppen

Getxo Kirolak-ek WhatsApp kanal berri bat jarri du martxan herritarrekiko komunikazioa hobetzeko eta udalerriko kirolari eta jarduera fisikoari buruzko informazio garrantzitsua eskuratzeko. Norabide bakarrek hedapen-kanala da, eta kirol-instalazioei, jardueri, ordutegi bereziei eta intereseko beste edozein informaziori buruzko abisua eta albisteak arin eta zuzenean jasotzeko aukera emango du, aplikazioaren ohiko elkarrizketekiko interferentziarik gabe. Zerbitzu berri honek denbora



errealako informazio-eskaera gero eta handiagoari erantzuten dio, bitarteko digitalen bidez, eta modu pribatu eta fidagarrian albiste garrantzitsuetarako sarbidea errazten du. Erantzun zuzenik ematen ez duen arren, mezuei erantzuteko eta edukiak beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera ematen du.

Bat egiteko, nahikoa da gaitutako QR kodea eskaneatzea eta jakinarazpenak aktibatzea eguneraketak berehala jasotzeko. Kanalerako esteka: <https://labur.eus/7ia6yhao>

Euskal mendizaletasunaren historia biziak hitzordua du Punta Begoñan

Getxoko Etorkizuna Mendi Taldeak bere berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko antolatu duen egitarau trinkoko hainbat jarduera Punta Begoña Galeriatan egingo ditu. Elkarteak, egun, 400 kide baino gehiago ditu.

Martxoaren 23ra arte, EMMOA Fundazioak (Euskal Mendizaleatasunaren Museoa) prestatutako *Mendian Gora* erakusketa egingo da. Erakusketak "euskal mendizaletasunaren historiako gertaera garrantzitsuenak biltzen ditu, sorreratik gaur arte". Erakusketa zabalik egongo da ostegunetik larunbatera, goizean 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldean 16:00etatik 19:00etara.

Martxoaren 13an, 19:00etan, *Emakumea eta mendia* mahai-ingurua egingo da eta bertan izango dira honako hizlari hauek: Ohiana Azkorbebeitia korrikalaria; Luisa Alonso Cires *Pyrenaica* aldizkari-ko lehen emakume zuzendaria; Sonia Casas goi-mendiko lehen emakume gidaria; eta Isabel Garcia alpinista (zortzimilakoak igo dituen). Sarrera libre da leku guztiak bete arte.



Eta, maiatzean, hilaren 22tik 25era, Santiago Yániz Foto y Montaña erakusketa izango da, paisaia-argazkigintzaren arloko egilerik ezagunenetakoa.



Getxoko II. Maratoi Erdia, martxoaren 30ean

Martxoaren 30ean (igandea), 09:00etatik aurrera, Getxoko Maratoi Erdiaren II. edizioa egingo da, 21 kilometroko proba homologatua. Getxo Kirolak-en babesarekin Getxoko Atletismo Klubak antolatuta, Fadurako kiroldegian izango du irteera eta helmuga, eta probak udalerriko toki enblematikoak zeharkatuko ditu, hala nola Bizkaia Zubia, Txurruka kaia edo Portu Zaharra. Gainera, 5 eta 10 km-ko beste bi lasterketa egongo dira (bigarren hori ere homologatua) maila desberdinetara iristeko eta pertsona guztiek kirolaz gozatu ahal izateko. Informazioa eta izen-emateak: www.kirolprobak.com



Getxok X. Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival jaialdia inauguratuko du

Ostegunean, martxoak 13, Muxikebarrik Laboral Kutxa Bilbao Surf Film Festival jaialdiaren hamargarren edizioaren inaugurazio gala hartuko du. Nazioarteko erreferentzia den diziplina anitzeko ekitaldia da, eta Udalak laguntzen du, surfeko zinemarako plataforma paregabea izateaz gain, argazkigintza, erakusketak, artea, networkinga, tailerrak, kontzertuak, skatea, lehiaketak eta txapelketak barne hartzen dituena. Getxo bizitzeko eta lan egiteko leku erakargarria izan dadin ekintza profesionalak egiteko Udalak duen estrategiaren barruan kokatzen da ekimena.



Getxo, belar hockeyko haur mailako Espainiako Txapelketaren egoitza

Getxo da belar hockeyko haur mailako Espainiako Txapelketaren egoitza. Jolaseta eta Fadurako zelaiek hartzen dute txapelketa ostegun honetatik, hilak 6, igandera, hilak 9. Guztira, zortzi klubek jokatzen dute txapelketa, gizonekoetan zein emakumezkoetan. Jolasetak, klub antolatzaile gisa, bi kategorietan dauka ordezkaria. Mutiletan, Club Atlético San Vicente, Alacanteko Unibertsitatea, Bartzelonako RC Polo, Madrileko

Club de Campo, Egara, Atlético Terrasa, San Cugat del Vallés, Tennis de Santander eta Jolaseta dira arituko direnak. Nesketan bestalde, Egara, Junior, CD Terrasa, Club de Campo, Atlético Terrasa, Banalmádena, CHDLM Usoz eta Jolaseta dira koadroa osatzen dutenak.

Txapelketaren atariko fasea lehenengo bi jardunaldietan jokatuko da, ostegunean Jolasetako instalazioetan eta ostiralean Fadurako kiroldegikoetan.

Larunbatean iritsiko dira kanporaketak, bai bosgarren postutik zortzigarrenean, bai titulurako bi finalerdiak. Dominen borroka igandean izango da, 09:00etan brontzeagatik eta 13:00etan urreagatik. Finalerdiak eta dominen borroka Neguriko klubean izango dira.

Emakumezkoen multzoari dagokionez, lehiaketa sistema gizonzkoen faseko bera izango da. Finalerdiak Jolasetan jokatuko dira, brontzea lortzeko lehia Faduran igandean, 09:30etik aurrera, eta finala egun berean, 11:00etan Jolasetan.

Itxartu Taldearen Krosaren edizio berria

XXXVII. Itxartu Krosa Algortako erdigunean izango da igandean, hilaren 16an, 1.100 metroko zirkuitu batean, Itxartu Taldeak antolatuta, Getxo Kirolakekin lankidetzan. 10:30ean haurrentzako probak hasiko dira, eta 12:00etan senior kategoriarekin amaituko da; azken lasterketa horretan 5.500 metroko distantzia bete beharko dute.

Izena ematea doakoa da kategoriaz guztietan, beterranoen eta seniorren kategorian izan ezik, 5 euroko prezioa izango baitu. Asteazkenean, hilak 12, formalizatu daitezke www.itxartu.com webgunean.

Lasterketa dela eta, Telletxe, Algorta etorbidea eta Mariandresena kaleak itxita egongo dira zirkulazioarentzat 10:30etik 12:45era.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, FEMINISMOA ZUREKIN DOA

“Getxo, kohesionatua, anitza eta inklusiboa. Bidezkoa den eta desberdintasunik onartzen ez duen gizartea eraikitzeko balioak dira berdintasuna, ekitatea eta kohesioa. Bizi-proiektu guztiak onartzen dituen gizartea behar dugu eta guztiok izan behar ditugu garatzeko gutxieneko baldintzak”. Horixe da EAJk Getxon bizi diren eta lan egiten duten emakume eta gizonekin duen konpromisoaren goiburua.

#Ni Feminista Naiz; feminismoa zurekin doa da Emakundek 2025ean –bai, 2025ean– martxoaren 8rako aurkeztu duen leloa, Emakumeen Nazioarteko Egunarena, alegia, non aldarrikatzen jarraitu behar dugun emakume eta gizonen eskubide-berdintasuna; ekitatea bizitzeko alor guztietan: gizartea, familia, ekonomia, lana eta abar. Halaber, feminismoak gizarteari egiten dion ekarpen garrantzitsua ere aldarrikatu behar dugu.

Emakundek, Euskadiko erakunde guztiekin ba-



tera, martxoaren 8ko esparruan azpimarratu du beharrezkoa dela balioa ematea berdintasunean lortutako aurrerapenei, eta erakustea feminismoaren balioek botere eraldatzailea dutela pertsonen eguneroko bizitzan.

Askatasuna, errespetua, hezkuntza, berdintasuna, ongizatea, ahalduntzea, aniztasuna, eskubideak, ekitatea, demokrazia eta elkartasuna dira Euskadiko M8-ko kanpainak azpimarratzen dituen termino batzuk. Hogei urte bete dira emakumeen eta gizonen berdintasunerako lehenengo legea onetsi zenetik. Lege funtsezkoa izan zen, feministek hainbat urtetan zehar egindako ekarpenari esker lortua.

Herrialde askea da pertsona guztiak aske eta berdinean bizi daitezkeen herrialdea.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna. #Ni feminista Naiz. Feminismoa zurekin doa.



UDALAK ATZERA BOTA DITU KONTAINERRAK ERRETZEAREN KONTRAKO NEURRI ERAGINKORRAK

Getxo gertakari bandalikoaren goraldi kezagarri baten agertokia izan da, bereziki kontainerrak erretzeari dagokionez. 2024an, horrlako 32 gora-behera erregistratu ziren, eta, 2025ean, momentuz, horrelako beste 14 gertaera egon dira jadanik; batzuek kalteak eragin dizkiete gertuko jabetza eta ibilgai-luei. Hori dela-eta, alderdi honek otsailaren 27ko osoko bilkuran proposatu zuen orain dauden kontainerrak ordezkatu daitezela metalezko eta suaren kontrako beste batzuekin; neurri hori jadanik hartu da arrakastaz beste udal-erri batzuetan, hala nola Santurtzin.

Alabaina, proposamena ezetsi egin zen, gobernu-taldeak sistema “berritzaile” baten alde egiten baitu, orain dauden kontainerren barrualdean su-itzalgailuak instalatzeko; gure iritziz, ez da oso bideragarria, eta baliagarri eraginkorra ez izatea. Horregatik guztiagatik, azpimarratu nahi dugu segurtasuna eta prebentzioa lehentasunezkoak izan behar direla, eta deitoratzen dugu Udalak neurri eraginkorrak hartu gabe jarraitzea bandalismo-bolada horri aurre egiteko, zuzenean eragiten baitie kaltea getxotarrei.



ehbildu

EH BILDUK AURKEZTUTAKO HIRU MOZIO ONARTU DITU BILKURAK

Otsaileko osoko bilkuran EH Bilduk aurkeztutako hiru mozio onartu ziren. Lehenengoa ikastetxeen inguruko mugikortasunarekin eta segurtasunarekin lotuta dago. Getxon ditugun 18 zentroetatik bakarra oinezkoentzako gune batean dago, eta beste bat bidegorriarekin lotuta dago. Gainerakoak errepidez inguratuta daude eta gehienek irisgarritasuna hobetzeko neurriak behar dituzte. Espero dugu Gobernu Taldeak bere konpromisoa betetzea eta benetako neurriak hartzea, hezkuntza-komunitatearen eta inguruko bizilagunen

iritzia kontuan hartuta. Presioa egiten jarraituko dugu.

Bigarren mozioa elikagaien xahuketarekin lotuta egon zegoen. EH Bilduk proposatu zuen Udalak bat egitea elikagaiak xahutzearen aurkako plataformarekin, eta saltokiekin, ostalaritzarekin, supermerkatuekin eta abarrekin koordinatzea, kontsumitu daitezkeen elikagaiak aprobetxatzeko, zaborrean ez amaitzeko. Datuek diotenez saltokietan botatzen denaren % 79 baino gehiago eta taberna eta jatetxeetan botatzen denaren % 60 baino gehiago aprobetxatu daitezke.

Beste udal batzuetan dagoeneko neurriak hartzen ari dira arlo honetan, eta Getxon ere hala egitea espero dugu (eta bestela eskatzen jarraituko dugu).

Azkenik, hirugarren mozioa Sahararekin lotuta egon zen, osoko bilkuraren egun berean, otsailaren 27an, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren urteurrena ospatzen baitzen. PSEk kontra bozkatu zuen arren, osoko bilkurak gure mozioa onartu zuen. Udalak elkartasuna adierazi zion saharar herriari, eta Marokoren legez kanpoko okupazioa salatu zuen. Sahara hurra!



BERDINTASUNAREKIN KONPROMETITUAK

Aurten, martxoak 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, emakumeen eskubideen babesarekin eta berdintasunarekin dugun konpromisoa indartu eta azpimarratu nahi dugu. Berdintasun Zerbitzua kudeatzen duen aldetik, Getxoko PSE-EEK lan egiten du emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitze aldera. Apustu sendoa egiten dugu ahalduntzea

eta emakumeen arteko trukea sustatuko duten espazio feminista berriak sortzearen alde. Horren adibide da GURARI, Getxoko Emakumeen Etxea, berriki inauguratu dena. Herritarrak animatu nahi ditugu M8 dela-eta GURARIn antolatutako jardueretan parte har dezaten. Aurten, gainera, Getxok bat egin du EUDELEK Pekingo Ekintza Plataforma eta Deklarazioa sortu zeneko 30. urteurrena gogoratzeko egindako eskae-

rarekin. Akordio horiek martxan jarri zuten genero-berdintasuna eta emakume guztien ahalduntzea lortzeko ibilbide-orria, bai eta neskena ere, eta haien giza eskubideak aldarrikatzen lagundu zuten. Getxon jarraituko dugu tokitik lan egiten duela 30 urte Pekinen hartutako konpromisoa benetakoa izan dadin. Izan ere, Getxo herri berdinzalea izan dadila nahi dugu, feminismoaren balioak defendatzen dituen.



HAURREN PARKEAK

Otsaileko osoko bilkuran haurrentzako parkeak eta txikientzako eta nerabeentzako jolas-tokiak hobetzeko gure proposamena onetsi zen. Lan egiten jarraituko dugu jolas-tokietan elementu bereziak txertatu daitezkeen eta jolasteko espazio berdeak gaitu daitezkeen. Horrez gain, haur getxotarrek espazio berriak diseinatzeko parte hartu ahal izango lukete. Zergatik ez ditugu haien ahotsak kontuan hartuko ukitzen dieten gaietan?